

Euskarazko irakurketa sustatzeko 'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa

Topaguneak 'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoaren bosgarren edizioa aurkeztu du. Irakurketa sustatu asmoz, Hego Euskal Herriko 12 herrietan egingo dute; tokian tokiko euskara elkarteetan, udal liburutegien eta liburu denden elkarlanari esker gauzatuko da. Gurean, Amasa-Villabonan eta Asteasun izango da aukera.

Topaguneko Manuel Morenok eta Manuel Larramendi Bazkuneko kide den Bakartxo Iguaranek aurkeztu dute. Kanpainaren izenak berak argi adierazten duen bezala, hiru pauso eman behar dira bertan parte hartzeko. Lehenengo pausua irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, hain zuzen ere: herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan hartzea, eta ondoren irakurtzea.

Liburua irakurritakoan, liburutegira bueltatu, eta fitxa erraz bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburu, zer inpresio eman dion irakurleari,... Fitxa hori beteta, liburutegia erosteko txekia emango du, hitzartutako liburu-dendan erabiltzeko.

Azken pausoa, aurreko urteetan bezala, liburu oparitzea da. Liburutegian jasotako txartelarekin, prezioaren %25 ordaindu ahal izango da liburu dendan euskarazko edozein liburu erostean, edo %50 euskara elkarteren bateko kidea izanez gero.

Egitasmoaren helburu nagusia irakurzaletasuna bultzatzea da, eta horretarako, euskaraz irakurtzearen alde atsegina azpimarratu nahi dute. Topaguneak, euskararen erabilera gozagarria sustatu nahi du irakurtzeak eta oparitzeak dakarten gozamenaren bidez.

Halaber, bide batez, oso garrantzitsuak diren bestelako helburuak ere lortu nahi ditu Topaguneak ekimen honen bidez, hala nola euskara elkarteetako bazkide diren euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtzea, era askotako eragile publiko eta pribatuen elkarlana sustatzea eta eragile horien guztien arteko harreman sarea euskaraz hedatzea, eta ekarpena egitea euskarazko liburugintzari, liburuaren ekoizpena eta salmenta bultzatuz.

Egitasmoa, Eusko Jaurlaritzaren eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aldundien babesaz gain, Alberdania, Erein, Elkar, Ibaizabal, Pamiela eta Susa argitaletxeek ematen duten laguntzari esker izaten da posible.

Apirilaren 23tik aurrera

"Irakurri, Gozatu eta Oparitu" egitasmoa hilaren 23an hasiko da, Liburuaren Nazioarteko Egunean. Amaiera, berriz, uztailaren 23an izango du, uda izaten baita jendeak irakurtzeko denbora gehien duen tarte, eta ondorioz uda aurreko hilak oso egokiak iruditu zaizkie antolatzaileei liburu trukea sustatzeko.

Aipatu bezala, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako 12 herritan egongo da martxan kanpaina hau datozen hiru hilabeteotan, tokian tokiko Euskara Elkarteek sustatuta. Gipuzkoaren kasuan, eta gure eskualdean Asteasu eta Amasa-Villabona izango dira.

Iaz 16 herritan gauzatu zen egitasmoa, eta gehienetan eragin positiboa izan zuen liburutegietako euskarazko liburuaren maileguan, batez ere, 18 urtetik gorako irakurleen artean. Liburu salmentetan ere, eragin positiboa izan zuen, 600 liburu baino gehiago saldu zirela adierazi dute antolatzaileek, parte hartu zuten 23 liburu dendetan, erosleek horretarako egitasmoak eskaintzen dien erosketa txekia erabilita.